

# Barriako monasterioa

*Entre los siglos XII-XIII, al filo del cambio de siglo, hacia 12000, la Provincia de Alava vio nacer su primero y único monasterio femenino cisterciense, al modo del de Tulebras en la Ribera navarra casi medio siglo antes. Esta fundación situada en Barrundia, en la Llanada Alavesa, había de durar hasta nuestros días en su ubicación original, y continuó prolongándose en su nuevo Monasterio de Oion, en los límites meridionales de la Provincia (1973-2012). Reducida en número su Comunidad, esta se ha acogido, por último, al Monasterio cisterciense de Lazkao.*

Barriako monasterioa esaten dugun honetako moja zistertarrek bi egoitza izan dituzte, jatorrizko lehenengoa luzaroan Arabako Lautadako Barrundian (c. 1200-1973), eta bigarrena Arabako Oion-en (1973-2012). Hortaz, 2012an Lazkaoko moja zistertarreneira bildu ziren azkeneko Oiongoak; 812 urteko historia izan du Komunitateak.

### Sorrera ondoko oihartzunak

Monasterioak berak hainbat agiri baliagarri gorde du bere Artxiboan, eta bertan gorde edo ez, Vatikanoko Artxiboan ere azaldu dira Barriari dagozkion albisteak. Monasterioko Artxiboak 217 agiri eta 12 agiri-liburu historiko ditu gordeta.

Hala ere, zaila gertatzen da monasterio honen fundazio-urtea bera zehaztea, eta gaur egun historialariek nahiago dute sorrera 1200 inguruan gertatu zela esatea, zehaztasun handiagorik gabe. Beraz, XII. mendeko zistertarren olatu-aldi handiaren hondarretan ikusten da Barriakoaren eraikuntza.

Oso ohikoa zen bezala, handikiren baten erabakiz gertatu zen hori: beharbada Nafarroako Koroak sortu zuen, edo, nork daki, agian Lautadako jaun nagusi ziren Mendotzarrek. Hipotesi biak aipatu izan dira. Fundazio honen aurrekari hurbilena Tulebrasko zistertar mojena izango litzateke (honen sorrera-urteak 1149-1157.etan eman ohi dira). Nolanahi ere, zistertarrek Euskal Herrian emakumeari leku egin nahi izan ziotenaren lekukoak dira biak,

Tulebras Nafarroako Erriberan eta Barria Arabako Lautadan.

Burgosko Las Huelgas monasterioaren barrutian zegoen Barria, beharbada Mendotzarrek XIII. mendeko beren politika gaztelazalean harekiko atxikimendua sustatu zutelako. Las Huelgas-en eskumeneko monasterioetan Barriako hau txikitakoa zen, itxura guztiz, Leon X.ak 1517an bertako lagun-kopurua 12 moja eta bi laguntzaitelara mugatu baitzuen, beste zenbaitetan 20 edo 30 moja ere izan zitezkeen bitartean.

Beste monasterio askoren historietan gertatzen denaren antzera, Barriakoan ere ez dakigu deus monasterio berriaren lehen urteetako barne-bizitza erlijiosoaz; oro har, esan daiteke mojen bizipen erlijioso ezkutuan eta isilean galdu zaigula ia beti. Alderantziz, dokumentuek ondasunen, eskubideen eta epaitegietako auzien albisteak gorde dizkigute.

Dena den, Barriako barne-historia ez zen izan orduan ere erabat anonimoa eta izenik gabea. XIII. mendeko hiru Abadesa ezagutzen ditugu behintzat. Lehenengo ezaguna Toda Yañez dugu, 1217an monasterio jaioberria ondasun egokiz hornitzen ahalegindu zena, lursailak, errota, eta iturburuak erositak. Ikusten denez, tradizio zistertar jatorrari eusten ziola. Ondoko Abadesa ezagunak ere politika bertsua eraman zuen; kasu honetan, Abadesa hori sendi ezagunekoa zen eta Ines Mendotzakoa zuen izena, ongile ezagunen familiakoa.

Arabako handikiekiko harremanak ongi



zaindu zituen monasterioak, eta Mendotzarrek bezalatsu Gebaratarrek eta abarrek esku zuzena izan zuten bertan ondoko mendeetan, leinu horietakoak izan baitzen Barriako zenbait Abadesa. XVIII. menderaino jasotako eraikin ederrak (moja-etxea bera, klaustro eta guzti; eliza) harreman haien emaitza izan ziren.

### **Barria eta Arabako gizarte eta erakundeak**

Arabako familia "onak", adiskideak, lagunak eta ongileak izan ziren Barriari sostengua eman ez ezik monasterioa barrutik sustatu eta bizkortu zutenak. Arabako agintedunekin eta Gaztelako Gortearekin harremanak bere lehen mendetik hasita sareztatu zituen monasterioak, eta Probintziako gizartean toki berezia aitortu zitzaion Barriari, izan ere ongi estimatua baitzen, baita Probintziako leinu jasoen arreta eta interesak bere baitan biltzen zituelako ere.

Monasterioa burgu edo hiribilduetatik kanpo zegoenez, landerrietako agintea bere eskuetan zaindu nahi zuen Arriagako Kofradia izan zen Barriarekin harreman onak nahi izan zituen Erakunde Nagusi bat. Kofradiari zegozkion Lurralde Irekiko gobernu-zereginak (zerga eta hamarrenak biltzea, justizia egitea, merinoak izendatzea, etab.), eta horrek bazuen zerikusirik monasterioaren ondasun eta esku-bideekin.

1252-1254.etan jarri behar da Barriak Kofradiarekin izandako lehen harreman albiste: Narbaxako auzoarekin izan zuen auzian, Kofradiak eman behar izan zuen epaia, eta, hain zuzen, luzaroan indarrean egongo zen epaia izan zen hura, Narbaxakoen aurka emana eta lurralde eztabaidatua Barriaren esku utzi zuena. Bestalde, Agirre eta Latxa auzoak (Kofradiaren zergapekoak zirenak) 1262an monasterioaren

eskuetara pasatu ziren, Arabako hainbat jaunek sinaturiko agiri baten bidez.

Oro har, esan daiteke Kofradiakoek beren kabuz ere gogoz lagundu ziotela Barriako monasterioari, Gaztelako Erregeek egin zutenaren antzera, edo Aita Santuek eman zuten babesaren modura. Indar sozial hauek guztiak ahalbideratu zuten Barriaren eskubide eta ondarearen garapena, Erdi Aroan bezala XIX. mendea arte.

Horrela, esan behar da benetako aginte instituzional, fiskal eta politikoa izan zuela, azkenik, Barriak, zenbait auzotako alkateak izendatzeko, zergak eta hamarrenak biltzeko, monasterioaren inguru hurbilean bertan eta Gasteizen ere.

Monasterioaren eta beronen inguru horren gain gotzainak ez zuen eskurik, eta Abadesaren eskumenean zegoen monasterioko parrokia, erretorearen izendapena eta bertako bizilagunekiko ardura eliztarra, harik eta 1875ean zeregin horiek Diozesira pasatu ziren arte. Urte horretako urtarrilaren 4an egin zen kargu monasterioaz Zabala jauna, Diozesiko Bikario Jenerala.

1842an egindako inbentarioak erakusten zuenaren arabera, 608 lur-sail zituen Barriak batez ere Narbaxa eta Axpurun, eta 10 etxe inguruko herrietan, etab. Estatuak desamortizazioarekin bereganaturiko ondasun hauek enkantera atera zituen 1842-1843. ean.

Inguruko herritarrek moja zisterarren oroitzapena bizirik dute gaurdaino, eta San Bernat-en urteroko jaia ospatu egiten da Barrian (abuztuaren 20an), nahiz eta, esan bezala, mojak Barriatik 1973an irten ziren.

*Joseba Intxausti*